

Bihar arte, ikurriña

Hondarribia, 8. zk., 1986-11: 5.

Bestaldean tiroz hil berria zuten "Txapela" izeneko gazte baten oroimenez landatu zuten Hondarribiako uretan ikurrin txiki bat, duela hiruren bat urte.

Espigoiko bidegalean.

Suertatu zen, txalupan alargunarekin batera horreraxe heldu zen gizona ezagutzen nuela. Donibane Lohitzunez geroztik, biok hemendik joanak. Ez genuen gauz askotaz berdin pentsatzen, baina biok abertzale euskaldunak ginenez, ez genuen besterik behar, eta maiz egoten ginen elkarrekin. Sendagilea zen, eta, Urdazuri auzo bertan bizi ginenez, dei egiten genion gaisotasunetan; ez dut gizon desinteresatu eta bihotz zabalagorik ezagutu.

Eta lagun egin ginen.

Oraindik hor ikusten dut txalupan alargun gazteari laguntzen; eta jendea ibaiaren bestaldean eta jendetza hemen, denak kantuz.

Geroztik hor geratu zen ikurrin txikia ongi ainguraturik.

Nire eguneroko joan-etorrietan agurtzen nuen eraila izan zen gaztea, barrutik agurrak ongien bideiaratzen diren bidetik, eta betiko pelikula pasatzen zitzaidan burutik: alargun gaisoaren estuasuna, Santi lagunaren nahigabea.

Santi ezagutu nuen garaiko egunak gogorrak ziren, Carrero-ren hilketa eta Franco-ren hiltzori luze-luze hartarainokoak: gazteek ihesa larrietan iristen ziren hara, eta arropa, koltxoi eta sendagaien behar gorrian aurkitzen ziren; Santi ez zen geratzen, egunez, gauez, gazteen nekeak, gaisotasunak eta zauriak sendatzen. Egun hauetako batean, gure herriaren egoera larriaz hizketan ari ginela gertatu zen Donibanen polizia espainolak errefuxiatuen aurka egin zuen eraso gogor bat. Esan nion, gauez ibiltzerakoan arretaz egoteko, arren; orduan aitortu zidan heriotzari ez ziola beldurrik, kolpe txar batzuen minez elbarritua geratzeari baizik.

Hil zen Franco; egin genituen etxeratzekoak noizpait; bakanka Bilbora joaten nintzanean ikusten genuen elkar; hark berean jarraitzen zuen politikan eta haurren sendagile bezala lanean, lehen bezain zintzo. Egun txar batez irratiz entzun genuen bi mertzenari kontsultan sartu eta tiro gaizto-beltzez akabatu zutela.

Geroztik ikurrintxoak bi heriotza gogarazten zizkidan.

Eta, egun batez, akabo ikurriña!... "Ez duk bakarrik joan!", esan nion nire buruari, eta tristetu ninduen ezkutuko bidaia maltzur hark. Baina egun batzu barru, hor zeok!... "Ez duk bakarrik etorri"... Eta harrez gero joan-etorriak izan ditu ikurrintxoak.

Gaur bertan: atzo hor zegoena eraman dute berriz!

Hala, denon aurrean "Txapela"ren oroimenez, Hondarribiko uretan Santi Brouard-ek alargunari laguntzen, bien artean uretan landatu zuten ikurrintxoak, gaueko misterioz egiten dituzten joan-etorri luzeak, ez dakigu nora.

Gaur ez dago; bihar arte.